

## ABEREAK ALKARTASUN BARRIAN (1)

(Lei = Leizarraga, 1571; Duv = Duvoisin, 1865;  
Ol = Olabide, 1958; E-B = Euskal-Biblia, 1976)

### Animal (Pedro'ren 2.<sup>a</sup>, 2, 12)

Pero éstos, como *animales* irracionales.

Lei: Baina hauk, *animal* brutal... bezala. (Baita *abre* be: *abrén* gorputzak: Ebertarrai 13, 11).

Duv: Bainan haukiak, adimendugabeko *abere* batzu iduri.

OL: Orrako oriek, berriz, *abere* adingabeak bezela.

E-B: Orrelako orreik, barriz, *abere* adimen-bageak lez.

### Animal salvaje (Markos 1, 13)

Estaba entre los *animales* del campo.

Lei: eta zen *bassa bestiekin*.

Duv. eta bizi zen *basabereekin*.

Ol. basoan egon zan *iiziekin*.

E-B: Basoko *abereen* artean egoan.

### Cuadrúpedo, eta Bestia (Apostoluen Egiñak 11, 6)

y vi (en él) los *cuadrúpedos* de la tierra, las *bestias*...

Lei: eta ikus nezan lurreko *animal laur oindunetarik*, eta *bassa bestietarik*.

Duv: eta ikusi izan nituen *lau atzetako aziendak*, eta lurreko *basabereak*.

Ol: ta lurreko *lauroin*, *iize*.

E-B: lurreko *lau-oiñeko abere*, *pizti*.

### Fiera (Agerpena 6,8)

Se les dio poder... para matar con la espada, con el hambre, con la peste y con las *fieras* de la tierra.

Lei: eta haey eman zekién... hiltzeko ezpataz, eta gossetez, eta heriotzez, eta lurreko *bassa bestiés*.

Dubv: eta esku eman zitzaioen... hiltzeko ezpataz, eta gossetez, eta heldez, eta lurreko *basabereez*.

Ol: ta al izatea eman zioten... ezpataz gosez, izurriz ta lurreko *basapiztiz* iltzeko.

E-B: Eta ezpataz, gosez, izurriz eta lurreko *basapistiz* ilteko aal-izatea emon izan yaken.

### León (Pedro'ren 1.<sup>a</sup>, 5, 8)

Vuestro adversario, el Diablo, ronda como *león* rugiente.

Lei: etsay deabrua, *lehoin* marrumalari bat bezala.

Duv: deabrua, zuen etsaya, *lehoina* orroaz bezala.

Ol: *leoya* orruz bezela, txerren zuen etsaya.

E-B: deabrua, zuen arerioa, *leioia* orroka lez.

### Pantera edo Leopardo, eta Oso, eta León (Agerpena 13, 2)

La fiera que vi parecía una *pantera* (*leopardo*) con patas de *oso* y boca de *león*.

Lei: Eta nik ikussi ukan nuen bestiak *leoparta* irudi zuen, eta haren oinak ziraden *hartzarenak* bezalako: eta haren ahoa *lehoinaren* ahoa bezalako.

Duv: Eta ikhusi nuen basabereak, iduri zuen *lehoinabarra*; eta haren hatzak *hartzarenak* bezalakoak ziren, eta haren ahoa *lehoinarena* bezalakoak.

Ol: Nekuzan bidutzia *leoi nabarra* bezela zan; aren oñak artzarenak bezela, eta aoa *leoyarena* bezela.

E-B: Ikusi neban aberea *pantearearen* antzekoa zan, eta aren oñak *artzarenaren* antzekoak, eta aren agoa *leoiaren* antzekoa.

### Zorra (Mateo 8, 20)

Las *zorras* tienen guaridas.

Lei: Azeriek *zulhoak* zitié.

Duv. Hazeriek ba-dituzte zilhoak.

Ol: Azeriek *zuloak* ba-dituzte.

E-B: Azeriak euren *gordelekuak* daukez.

### Lobo (Mateo 7, 15)

pero por dentro son *lobos* rapaces.

Lei: baina barnean *otso* harrapari dirade.

Duv: barnean *otso* harrapariak dire ordean.

Ol: barnetik *otso* zakarrak dirala.

E-B: baiña barrutik *otso-lapurak* dira.

### Ganado (jateko) (Joan 4, 12)

y de él bebieron él y sus hijos y sus *ganados*.

Lei: eta berak hunetarik edan baitu, eta haren haurrék, eta haren *abrék*.

Duv.: berak ere huntarik edan izan baitu, eta haren umeek eta haren *aziendek* ere.

Ol: ta arek eta aren seme ta abereak (= abereek) ontatik edaten zuten.

E-B: eta bertotik edan eben berak eta bere semeak eta bere abereak.

### Ganado - Cabalgadura (Agerpena 18, 13)

(ni) *bestias de carga*, ovejas, caballos y carros.

Lei: *behor* eta ardi, eta zaldi, eta karriot.

Duv: *Kargako abereak*, eta ardiak, eta zamariak, eta orga-lasterrak.

Ol. ez *zamari*, giberri ta gurdirik.

E-B: ez *zamari*, ardi, zaldi ta burdirik.

KEREXETA'K